

# 1. Gazteak, politika eta parte-hartze politikoa

## 1.1. ABIAPUNTU KONTZEPTUALA. GAZTEAK, POLITIKA ETA PARTE-HARTZE POLITIKOA

### 1.1.1. Gazteak eta gazteria

Gazteriaren Soziologiaren aspaldiko desafio handienetako bat izan da bere ikergaia modu egokian zedarritzea (Taguenca Belmonte, 2009; Leccardi eta Feixa, 2011; Villa, 2011; Bendit eta Miranda, 2017; Filardo, 2018; Ramírez Varela, 2019; Bracho Mosquera, 2021). Egiatan, erronka hori are handiagoa da erabilitako kontzeptuak eta ikuspegi teorikoak azkar aldatzen ari den munduari doitu behar zaizkionean (Woodman eta Threadgold, 2011). «Gazte» kategoria adinari lotutako kontzeptu biologiko hutsa baino askoz ere korapilatsuagoa da soziologian. Izatez, gazte kategoria hori kontzeptu historiko moduan ulertu behar da. Halatan, Aro Modernoa baino lehenago ez zegoen haurtzarotik helduarora bitarteko bizi-tarte bereizi eta luzerik, gaur egun ulertzen den erara. Baina, Modernitatearen etorrerarekin batera, aldatu egin ziren pertsonen bizi-zikloak eta horien esanahi sozialak. Batetik, lan industrialerako beharrezkoa zen kualifikazio-maila gero eta handiagoaren premiak haurren eta nerabeen prestakuntza-epea luzatu zuen progresiboki. Bestetik, eraikitzen ari ziren nazio-estatuak beren beharrezanetara egokitutako eta hezitako herritarrak behar zituzten eta, ondorioz, beren ardurapean hartu zuten haurren eta nerabeen heziketa, eskolaren bitartez. Ordudanik, eskolatze-aldi hori gero eta gehiago handitu da, eta norbanakoen bizitzaren zati handia betetzen du gaur egun. Era berean, prestakuntzaren luzapenak atzeratu egin du merkatuan laneratzeko unea. Halatan, pixkanaka, gazteen kolektiboak presentzia soziala irabazi du, hartaraino irabazi ere, non kontsumo- eta kultura-joera bereziak dauzkaten taldeen multzo bilakatu den XX. mendeko kontsumo-gizartean: gazte-kulturak musikan, janzkeran, bizi-ohituretan eta partekaturiko bestelako esperientzietan sustraitu dira. Aldaketa horien ondorioz, hainbat zientziaren ikergai zientifiko bihurtu dira gaztea, gazteria eta gaztaroa XX. mendetik gaurdaino.

Gaztaroaren luzatze horrek ondorio esanguratsuak izan ditu. Bada, gaztaroak eta helduaroak pertsonen bizitzaren ibilbideari loturik dauden aldaketak dakartzate. Hala, aldaketa horietan, estatus berriak eskuratzen dira eta zaharrak uzten. Familiari buruzko dependentzia-loturak ahultzen dira eta bestelako lokarriak sortzen. Gazteek askatasun-osagaiak irabazten dituzte eta, trukean, erantzukizunak eskatzen zaizkie.

Hezkuntzatik lan-merkatura, dependentziazatik independentziara, eta gurasoekin bizitzetik lagunekin edo bakarrik bizitzen hastera doan trantsizio-epe hori luzatzeaz batera, XX. mendeko gaztaroaren kontzeptua zaharkiturik geratu da. Besteak beste, «gazte helduen» kategoria sortu da analisisetan, gazte izatearen aro desberdin horiek zehaztasunez bereizteko. Baina, auzia ez da soilik gaztaroa etengabe luzatzen ari dela. Gaztarotik helduarorako trantsizio-epea ez da dagoeneko behin betikoa, itzulgarria baizik. Izan ere, gazte-trantsizioak gero eta konplexuagoak dira eta, norabide bakarreko lerro forma galdu dute gizarte garaikideen baldintza sozioekonomikoen testuinguruan. Ildo horretan, gazte bat lan-merkatuan sar daiteke ikasketak utzi ondoren, eta, geroago, ikastera itzuli. Une jakin batean familiaratik emantzipatzea lor dezake, eta beste une batean itzuli beharra izan dezake. Atzera-aurreraz betetako ibilbideen patroik konplexu horiek «yo-yo trantsizioen» izena hartu dute ikertzaile batzuen lanetan (Furlong, 2016); ildo beretik, beste batzuek gazteen «joan-etorriko etapaz jositako trantsizio desestandarizatuaz» hitz egiten dute neoliberalismoaren testuinguruetan (Guerrero Puerta, 2023).

Ikusten ari garenez, beraz, bizi-epe modura, luzatu eta luzatu egin da gaztaroa gaur egunera arte. Ondorioz, arian-arian, gaztaroak garrantzia irabazi du eta «gazteria» kontzeptuaren bitartez, talde sozial modura irudikatu izan dira gazteak, beren espezifikotasun eta ezaugarri sozial nahiz kulturekin. Halaz ere, azterketetan sarri erabiltzen den gazteriaren kontzeptua nahasgarria da analisi soziologikoan.

Orain arteko azterketa askok gazte guztien —edo gehienen— portaera politikoen berezitasuna azpimarratu dute. Singulartasun hori bizi-zikloaren ondorioz gertatzen dela baieztatu dute batzuek, eta bizitzako une horretan gauzatzen diren esperientziekin lotu dute. Esperientzia horiek, zehazten dute, erantzukizun sozialen gabeziak ezaugarritzen ditu, batik bat. Halatan, ildo horretako ikuspegian iradokitzen da gazteak aiseago eta modu lasaiagoan konprometi daitezkeela protesta-eta erreibindikazio-ekintzetan eta, gero, helduen munduan txertatu ahala, haien erantzukizun sozialak eskuratu —lana, familia, etxe propioa...— eta ohiko bizitza politikoa integratzen direla.

Bizi-zikloaren ikuspegiaren aurrean, gazteen portaera politikoetan belaunaldi-faktoreek duten eraginean jarri du arreta azken hamarkadetan beste azterketa multzo batek. Bigarren ikuspegi horrek adierazten du, bizi-zikloaren orde, kohorte kontzeptua —hau da, garai berean jaiotakoen talde soziala— hartu behar dela analisiaren abiaburu gazteek mundu politikoarekin sortzen dituzten harremanak ulertzeko. Aipatu ikusmoldeak adierazten du aro jakin bateko baldintzek eta aldaketek moldatzen dituztela belaunaldi bereko kideak, eta faktore ekonomikoek, sozialek eta kulturek modu sakonean eta, batez ere, iraunkorrean eragiten dutela belaunaldi horretakoen izaera politikoa (Morán eta Benedicto, 2008; Tiberj, 2017). Ondorioz, belaunaldien txandatzeko politikoarekin batera, mudatu egiten dira mundu politikoa eta harreman politikoak ulertzeko moduak ere (Tiberj, 2017).

Baina, egia izanda gazteak, adin-talde moduan, unean uneko gizartearen joeren menpe daudela, eta, neurri batean, egiturazko joera historiko horien arabera antolatzen dituztela beren bizi-baldintzak, partekaturiko faktore horrek ez du osotasunean erakusten gazteen errealtate politikoa. Izan ere, pertsona helduekin gertatzen den bezala, gazteek ez dute talde homogeneoa osatzen. Aitzitik, jatorriak edo klase sozialak, generoak edo kultura kapitalak, eta gazteen kokapen soziala ezartzen duten antzeko adierazleek baldintzatu eta moldatu egiten dute aipatu egiturazko joera sozial orokorren inpaktua gazte-kolektibo jakinetan. Horrenbestez, gazteria harremanezko kategoriatzat hartu behar dugu (White eta Wyn, 2008), hain zuzen ere, adin bereko edo antzeko adineko pertsonen bizi-ibilbideetan dauzkaten aukera posibleak askotariko ildo sozialetan eta espazioetan kokaturik daudelako (Coffey *et al.*, 2018). Hartara, adinean ez ezik, gazteek testuinguru sozial jakinarekin dauzkaten harremanen nolakotasunean ere jarri behar da arreta gazteen azterketetan (Cuervo eta Wyn, 2012). Harreman horietan, berebiziko garrantzia dauka gazte-esperientziak gauzatzen direneko espazioen eraikuntza material eta sinbolikoak ere (Farrugia eta Wood, 2017).

Sukarieh eta Tannok-ek gogorarazten dutenez (2014), gazteria politika publiko askoren jomuga da gaur egun, baita gizarteko hainbat elkarte eta gobernuz kanpoko antolakunderen ekintzena ere. Ez da harritzekoa, gizarte baten etorkizuneko asmo edo amets proiektatuak sinbolizatzen dituztelako gazteen kolektiboek (Giroux, 2003). Hala, etorkizunari buruzko gizartearen kezak eta itxaropenak gazteen kategorian irudikatzen dira modu sinbolikoan. Krisialdien garaian, bestalde, are indartsuago gauzatzen dira proiektio horiek. Ildo horretan, harremanezko kontzeptua izateaz gain, osagai afektiboz hornitutako terminoak dira gaztea eta gazteria, eta antsietate afektiboz beteriko figura edo irudikapen sozialetan hezuramaitzen dira maiz.

Esan dugunaren arabera, gazteria ez da kontzeptu estatikoa, moldakorra baizik, eta haren esanahia une historikoaren egoera ekonomikoen, kulturalen eta politikoen arabera berrasmutzen da aldian-aldian (Moreno, 2015). Ildo berean, mundu akademikoan ere etengabe «garatze-bidean» dagoen kategoriatzat hartu behar dela ulertu dute batzuek (Nayak eta Kehily, 2013). Hala, lehenago, soziologiako ikuspegi empiristek adinak mugaturiko kategoria analitiko homogeneo moduan ulertzen bazuten ere (Comas, 2007), gaur egun ikuspegi kritikoagoak gazteriaren kontzeptua identitatez hornitzen ahalegintzen dira (Ravn eta Demant, 2012; Threadgold, 2017), azpimarraturik gazteria asmakizun soziala ez ezik (Galland, 2001), kategoria soziohistorikoa ere badela (Allerbeck eta Rosenmayr, 1995), adina baino harago doazen egoera sozialak biltzen dituela (Martín Criado, 1998) eta haren barnean dagoen dibertsitatea hartu behar dela aintzat.

Antzeko kontsiderazioetan oinarrituta, eta gazteriaren ustezko izaera homogeneoa kritikatu nahian, Bourdieuk (1980) esan zuen gazteria ez dela existitzen —«*la jeunesse n'est qu'un mot*»—, klase soziala, generoa, etnia eta bestelako aldagai

sozialei lotutako askotariko egoerak batzen dituelako barnean adin-talde horrek. Izan ere, adierazle horiek guztiek desberdintasun-egoerak sortzen dituzte helduen bizitzan gauzatzen diren integrazio-prozesuetan. Hortaz, testuinguru sozialaren araberak ulertu behar da gazte izatea zer den, testuinguruan jartze horrek ematen baitigu gazteen dibertsitatearen eta aniztasunaren berri adin-tarte bereko jendearen artean.

Mundu akademikoan dagoeneko oso argi ikusi da Mendebaldeko gizartearen aro historiko jakinetan testuinguru sozialak gaztaroa ulertzeko izan duen eragina, adibidez, gazteei buruz imajinario kolektiboan sustraitu diren sen oneko irudikapen politikoen osaketan (Tyler, 2008; Coffey *et al.*, 2018). Mundu akademikoan ere, behin baino gehiagotan gazteei buruzko azterketek errealitate desberdinak hartzen dituzte abiaburutzat, interes politikoak, ikuspegi teorikoak eta ikerketa-teknikak tarteko (Threadgold, 2019). Hala, sarritan, gazteria kontzeptua modu figuratiboan jartzen da praktikan, eta gazteen figura edo irudikapen mota desberdinek osatzen dituzte gazteen multzoak azterlanetan.

Esaterako, XX. mendearen erdialdetik gaur egunera arte, bi errepresentazio politiko nagusi hedatu dira gazte izateari itsatsitako ezaugarri modura (Morán eta Benedicto, 2008; Benedicto eta Morán, 2015). Lehenengoa, joan den mendeko 60ko hamarkadatik aitzina garatu zen. Irudikapen horretan, eraldaketa sozialaren eta kulturalaren ikur gisa agertzen zen gazte-jendea beste belaunaldien aurrean. Langileen iraultzaren aukerak gizarte garatuetan ia erabat urrundu ziren garaian, batzuen irudiko, gazteak hasi ziren aldaketa soziopolitikoaren subjektu historiko berria irudikatzen, eta, beste batzuen ikuspegian, ordena sozialaren arriskurik handiena osatzen. Horrela, 1960ko ikasle europar eta iparramerikarren protesta jarduerak eta mobilizazioak abiaburu harturik, irudikapen hegemoniko orokortua eraiki zen, eta «gazteriarri» esleitu zitzaizkion, baita modu idealizatuan esleitu ere, gazte-sektore jakin batzuen ezaugarriak: disposizio ez-konformista, konpromiso politikoak, ezarritako ordenaren aurkako jarrera eta berrikuntza kulturalaren aitzindaritzak, besteak beste. Bigarren irudikapena XXI. mendean zabaldu da, eta beren premietan eta horietan soilik zentratutako gaztearen gaur egungo imajinario hegemonikoa ekarri digu. Hala, interes indibidualak gidaturiko gazteria dugu horren protagonista, auzi kolektiboen aurrean arduragabea, politikatik urrundua, gizartean aisialdiaren eta kontsumoaren bitartez baino integratzen ez dena, esparru publikoan mobilizatzen den une apurretan adierazpen kaotikoa eta ustekabekoa duten iraupen laburreko ez-tandean bitartez agertzen dena.

Irudikapen estereotipatu horiek sortzen dituzten distortsioak alde batera utzita, eta arestian esandakoari jarraikiz, gazteria delakoa ezin da definitu adinaren arabera ere, ez bada modu analitiko batean (Martín Criado, 1993; Prieto, 1994). Halatan, argi izan behar dugu gaztea eta gazteria ez direla ez errealitate biologikoak ezta naturalak ere; aitzitik, izatekotan, bai gizartean bai analisi zientifikoan eraikitako kategoriak ditugu (Hartinger-Saunders, 2008), gazteek bizi dituzten egiturazko baldintzen arabera definituak, baldintza horiek zedarrizten baitute, neurri batean,

baliabide sozialak eskuratzeko aukera eta norberaren bizitza ibilbidea kudeatzeko ahalmena (Schwartz, 1984). Ildo horretan, Merinok (2010) azpimarratzen duen moduan, gazteen ibilbideak eta jokamoldeak enplegu-egoeraren, perteneziazko klase sozialaren eta azpikulturaren mendeko adierazle bilakatu dira (Willis, 1977; Feixa, 1989). Laburbilduz, Izquierdok (1985) nesken gazte-ibilbide neketsuak aztertzean zioen bezala, gaztearen kategoria ezin da ulertu gaur egun desberdintasun biologikoei —eta haiei soilik— erreparaturik, gazteek beren artean bizi dituzten desberdintasunetan arreta jarriz baizik.

Halaz ere, adinak badu bere garrantzia gazteak zedarritzeko. Alde batetik, adinak botere-harremanen sarean kokatzen ditu haurrak eta gazteak adin-talde modura. Bourdieuren oinarri kontzeptuala aintzat hartuta, adinak —klase sozialak edo generoak bezala— mendekotasunaren eta menderatuen esparruak banatzen ditu. Lehenengoan kokatzen dira bai kultura nagusia eta bai pertsona helduak —heldu jakin batzuk, behinik behin— subjektu historiko dominante moduan, horiek izendatzen baitute sozialki onargarria eta legitimoa dena. Bigarrenean, berriz, mendeko kulturak egon ohi dira —azpikultura gisa definituak— eta gazteak, mendeko subjektu historiko moduan definiturik; azken horiek beste nagusiek izendatuak dira, besteak beste, adinean jatorria duten botere-harremanen arabera (Taguenca Belmonte, 2009). Beste alde batetik, adinak talde demografiko moduan ezaugarritzen ditu gazteak, eta populazio orokorraren beste adin-talde batzuen ondoan jartzen ditu. Adin-epe modura, XX. mendetik gaur arte gaztaroak jaso duen arreta soziologikoa nabarmena izan bada ere, XXI. mendeko lehen hamarkada hauetan gazteen kopurua urritzen ari da Mendebaldeko gizarte zahartuetan. Hurbileko adibide bat jartzearen, azpimarratzekoa da gazteen kopurua oso txikia dela Euskal Herrian. Izatez, biztanleen % 9,35 baino ez du osatzen gazteen taldeak (Gaindegia, 2020), 20-29 urteko adin tartean daudenen kopurua aintzat hartuta. Horri gehitu behar zaio kopuru horrek beheranzko joera izan duela azken urteotan (Gaindegia, 2021) eta, aurreikuspenen arabera, ez dela aldatuko hurrengoetan. Ondorioz, helduen eta, batez ere, adinekoen taldeen ondoan pisu politikoa galtzen ari da gazteen kolektiboa hautesleria modura, eta, hartara, politika publikoek bereziki adinekoen alde egiten dute gaur adin-talde gazteenen kaltetan (Politikon, 2017; Conde Ruiz eta Conde Gasca, 2023).

Soziologo batzuen aburuz, gutxitze hori gizartearen bazterretan kokatzen ari da gazteen adin-taldea politikarien begietan nahiz gobernuen politiketan. Eta, alderantziz ere bai, ikerketa batzuek erakusten dutenez, gazteek ere gero eta gutxiagotan ikusten dituzte beren interesak eta premiak islaturik gaur egun nagusi den esparru politikoan, alegia, sistema demokratiko liberaletan. Zalantzarik gabe, politika ordezkatzailan eragiteko gaitasuna galdu dute gazteek populazio orokorraren adin multzo modura, eta eraginkortasunik ez horren pertzepzioa handitzen ari da haien artean.

«Gazte», «adin-talde», «gazteria» eta antzeko kontzeptuen arteko balizko nahasmenak saihesteko asmoz, testu honetan «gazteak» kontzeptua lehenetsi dugu, adin-taldea zedarrituta ere, kolektibo horren barruko desberdintasun anitzen ondorioz

sortzen diren askotariko egoera eta kokapen sozialak ezkutaturik gera ez daitezten. Hala erabiliko dugu, beraz, hemendik aurrera.

### ***1.1.2. Politika, parte-hartze politikoa eta aktibismoa***

Politika zelan definitu planteatzen denean, eskuarki, kontzeptuaren ulerkeran nagusi izan diren ildo klasiko bi aipatzen dira; Aristotelesengandik jasotako ikuspegia, bata; Machiavellirengandik hartutakoa, bestea. Lehen ildoan dauden azterketak kooperazioaren logikan kokatzen dira eta, ondorioz, kolektiboki eragiten dien gaien inguruko herritarren deliberazio eta kolaborazio partekatutzat jotzen dute politika. Ikuskera horren arabera, politika gizaki bihurtzen gaituen jarduera da, denen ardura diren gauzei buruzko deliberazio komunean hitza eta limurtasuna erabiltzera behartzen baikaitu. Hari horretatik, politikak toki oso garrantzitsua betetzen du herritarren bizitzan, komunitateak partekatzen duen etikaren sortzailea delako, baita komunitatearen beraren boterearena ere. Politikaren ikuspegi atsegina dugu horixe, politikak gorputz politikorako daukan izaera hezitzailea eta etikoa nabarmentzen duena, eta eginkizun komun batean biltzen gaituen elkarlana agerian uzten duena.

Ostera, bigarren ildoan dauden azterketek kontrajarritako interesen inguruko gatazka dute abiapuntu, eta politika boterearen aldeko borrokan hezurramitzen den jardueratzat jotzen dute. Ikuspegi makiavelikoez, beraz, erakusten digute politikagintza, funtsean, jarduera gatazkatsua eta urratzailea dela, ez-morala ere bai, zenbaitetan. Machiavelliren hitzetan, politika egin nahi duenak «gaizkiaren bidean» barneratzeko prest egon behar du, alegia, bere etika lortu beharreko helburu politikoen mende jartzeko gertu. Izatez, bigarren adiera horretan, politika ez da lankidetzaz-jarduera, norbanakoen, taldeen, interesen eta mundu ikusmoldeen arteko lehia baizik. Nolanahi ere, bi ikuspegi horiek tipo idealtzat hartzen dira gaur egun. Horrek esan nahi du, praktikan, aldiberekoak izaten direla eta, itxura desberdineko oreka ezegonkorretan konbinaturik bada ere, nahasita atzematen direla errealitate sozialean. Bada, boterea eta legitimitatea, gatazka eta adostasuna, elkarrekin bizi dira edozein sistema soziopolitikotan (Larrinaga, 2004).

Hala ere, azterlan politikoek ikuspegi horietako bat lehenetsi dute eskuarki. Ildo horretan, Bottomorek (1982) XX. mendeko soziologia politikoan aurrez aurre jarritako bi ikusmolde nagusitu direla zehaztu zuen. Batetik, indarrean dauden instituzio politikoaren funtzionamenduaren analisis arduratu direnak, instituzio horiek orekan eta harmonian dauden sistema soziopolitikoaren osagai gisa harturik eta, bestetik, sistema horretan ezegonkortasunaren osagaiak eta aldaketaren aukerak analizatu dituztenak. Hartara, bi ikuspegiotan, ordenaren eta gatazkaren ideiak nabarmentzen dira, hurrenez hurren, eta sistema soziopolitikoaren ikuspegi zeharo kontrakoak defendatzen dira (Larrinaga eta Barcena, 2004).

XX. mendearen amaieratik gaur arte, politikari buruzko ikuspegi gatazkatsua nagusitu dela uste du Parések (2014). Hala ere, gatazkaren ildoko azterlanak ez datoz bat hainbat aspektutan. Horien artean, badaude joera elitista daukaten analisiak

eta, hartara, demokrazia liberal-ordezkatzailea oinarri hartzen dutenak. Horrela, agintarien eta gobernatuen arteko harremanetan zentratzen dira eta estatua hartzen dute politikaren ikergai nagusitzat. Eta, bestalde, badaude, egon, izaera erradikaleko demokraziaren eredu alternatiboak (eta normatiboak) proposatzen dituztenak. Azken azterlan horiek, adibidez, Ernesto Laclau eta Chantal Moufferen (1985) ekarpenetan inspiratzen dira, eta ordenamendu politiko-instituzionala nabarmendu ordez, gizarte-mugimenduen eta gizarte zibilaren botere-jardueretan eta ahalmen eraldatzaileetan jartzen dute arreta.

Gazteak eta krisia kontzeptuak maiz agertzen dira loturik gaur egun, eta hala agertu dira joan den mendeko azterlan klasiko batzuetan ere (Feixa, 2019). Besteak beste, pesimismo apokaliptikoa nagusituz joan delako ezker politikoak aldaketa garaikideei erantzun utopiko sinesgarriak emateko ezintasunaren ondorioz (Olariaga, 2021). Hain zuzen ere, XXI. mendeko azken hamarkadetan bizi ditugun eraldaketa sakonak —Kapitalismo Berantiarren globalizazioa, gizarte-, teknologia-, enplegu-, genero- eta familia-harremanen mudantzak, besteak beste— eta hortik eratorri diren krisialdiak eragina izaten ari dira politika ulertzeko gazteen orain arteko modu nagusietan eta haiek eraikitako subjektu politikoak ulertzeko moduetan. Aldaketaren testuinguruan sortuak izanik, gaur egungo gazteak rol garrantzitsua jokatzeko ari dira politikaren ulerkerak azken hamarkadetan egindako biran, gauzatzen dituzten praktika politiko eta sozial berrien ondorioz. Horregatik, berebiziko garrantzia dauka gaur egungo gazteek politikari esleitzen dizkioten esanahiak azaleratzea eta aletzea (Albero-Andrés, 2010; Benedicto, 2013).

Hartara, gero eta zentzu handiagoa dauka politika Haguek eta bere kideek (Hague, Harrop eta Breslin, 1994) definitu zuten terminoetan ulertzeak, hau da, gizataldeek erabaki kolektiboak hartzeko egiten dituzten jardueren multzo gisa. Ikusmolde horretan, politikak adiera zabala hartzen du, eta haren barnean instituzioek bideratutako jarduerak ez ezik, era askotako praktikak ere sartzen dira. Hari horretatik, uler dezakegu ekintza politikoak estatuaren eta haren instituzioen eginkizunak gaindi ditzakeela; areago, herritarren eguneroko bizitzako zeregina ere izan daitekeela, auzi kolektiboen konponbidea ez baita hertsiki «instituzio politiko» gisa XX. mendeko demokrazia liberaletan izendatu diren horien monopolioa. Ikuspegi horretatik abiaturik, gaur egun indarra hartu du politika «komunaren» gobernu moduan hartu duen diskurtsoak (Ostrom, 2015); hain zuzen ere, komunaren gobernu hori estatu-instituzioetatik, estatu-instituzioen kontra edo instituzioetatik at ere gauza daiteke. Eta, esan bezala, gazteek, parte-hartze ezberdinen bitartez, eragin handia izan dezakete politika ulertzeko eta egiteko «bestelako» forma horiek indartzean.

Jakina, azken urteotako politika kontzeptuaren adiera zabalagoak ezartzeak ondorioak izan ditu parte-hartze politikoa aditzeko moduetan ere. Ezarrera hori pixkanaka burutu da mundu akademikoan, XX. mendearen erdialdetik aurrera gizartean partaidetza mota berriak azaleratuz joan diren heinean. Halatan, hasiera batean parte-hartzea bozkaren azterketan oinarritzen baldin bazen ere, arian-arian,

azterlanek aintzat hartu zituzten herritarrek politikariek izandako harremanak, hauteskunde-kanpainetako lanak eta politika konbentzionaleko beste jarduera batzuk. Geroago, politika konbentzionaletik kanpoko ekintza motak ere integratu ziren azterketetan, eta protesta politikoetan, gizarte-mugimenduetan eta bestelako ekintza kolektiboetan ere jarri zen ikerketen fokua (Anduiza eta Bosch, 2007). Bestalde, bozkaz haragoko herritarren partaidetzarako bide instituzionalak irekiz joan dira administrazio publikoak ere, eta horrek gobernantza-sistema jakinetan eta, hortaz, bestelako parte-hartze moduetan inplikatu ditu herritarrak. Nolanahi ere, hainbat urtetan azterlan politikoetan uste izan da aipaturiko parte-hartze eredu horiek guztiek —konbentzionalak eta ez-konbentzionalak, estatu barruan nahiz estatutik at gauzaturikoak— prozesu politiko instituzionaletan eragitera orientaturik egon behar dutela ezinbestean, «politikotzat» hartu ahal izateko. Ildo horretan, parte-hartze politikoa prozesu politikoan eta haren emaitzetan eragina izan dezakeen herritarren ekintza mota moduan ulertu izan da luzaroan.

Baina, arestian ikusi dugunez, Haguere eta kideen ikusmoldeak (1994) are gehiago irekitzen du parte-hartze politikoaren adiera. Politika zentzu guztiz zabalean aditzen badugu, hau da, kolektiboari buruzko kudeaketa eta erabaki-hartze moduan —estatuak kudeaketa hori egiten duen ala ez alde batera utzita—, parte-hartze politiko gisa har litezkeen hainbat praktika azaleratzen dira esparru politikoan, lehenago aintzat hartzen ez zirenak. Hain zuzen ere, azken aldian bizi dugun krisi ekonomiko, kultural, sozioekologiko eta zaintzazkoaren testuinguruan, belaunaldi gazteen praktika asko eremu horretan kokatzen dira, esan nahi baita, gaur egun gai asko politizatzen ari direla gizarte- edo herri-ekimenetatik abiatuta eta, askotan arazo kolektiboak kudeatzen edo horiei irtenbideak ematen ahalegintzen direla gazteak. Parte-hartze praktika horiek berrikuntza sozial modura uler daitezke, eta Modernitate Berantiarreko auzi berriek eragindako birpolitizatze-dinamiken ildoan koka daitezke.

Horiek horrela, lan honetan abiapuntu hartzen dugun parte-hartzearen kontzeptua honako hau da: kolektibotzat hartutako dimentsioren batean eragiteko herritarrek gauzatzen dituzten praktika politikoak eta sozialak. Gure ustez, praktika horien barnean kontuan hartzen dira hauteskundeetako partaidetza eta hauteskundeetatik kanpo gertatzen dena, parte-hartze indibiduala, kolektiboa eta antolakuntzen bitartez gauzatzen dena, parte-hartze konbentzionala eta ez-konbentzionala, sistema politikoaren prozesu instituzionaletan eragiteko asmoz mamitzen dena eta auzi kolektiboak kudeatzeko asmoz egindakoa.

Hautaketa kontzeptualak ez dira inoiz neutralak izaten eta ondorioak eduki ohi dituzte errealitate politikoaz egiten diren irakurketetan. Hala, azaldu ditugun bi ikuspegi horiek inplikazio teorikoak eta analitikoak dituzte eta gazteen gaur egungo praktika politikoaren irakurketa desberdinetan islatzen dira. Adibidez, politikaren adiera instituzional hertsia hartuz gero, parte-hartzea bozkara edo alderdi politikoaren pertenezkiara mugatuz, ikuspegi batzuek gaur egungo gazte askoren despolitizatzeaz,



apatiaz eta alienazio politikoaz hitz egiten dute kolektibo horien diagnostiko politikoa egitean. Izan ere, gazteen konpromisoa hauteskundeetan, alderdietan eta, oro har, aktore politiko-instituzionaletan gero eta ahulagoa da. Politikaren eta parte-hartze politikoaren ulerkerak zabalagoak oinarri hartuta, aldiz, beste azterlan batzuek azpimarratzen dute «politika zaharra» baztertu eta politikagintza molde berriak agertzen ari direla belaunaldi gazteen eskutik. Azken ikuspegi horren arabera, ekintza politikoa, aktibismoa eta engaiamendu politikoa beste era bateko esperientzia eta ereduaren itxurarekin garatzen dituzte egun gazteek.

Egin dugun hautu kontzeptuala eta teorikoa kontuan harturik, gazteen jarduera politiko-instituzionala ez ezik, gizarte-mugimenduetan eta ekintza komunitarioetan gauzatutako praktikak ere hartuko dira aintzat lan honetan. Are gehiago, azken praktika ez-instituzional horiek osatzen dute azterlanaren gunea. Berez, gizarte-mugimenduak nahiz ekintza komunitarioa aztergai izan dira soziologia politikako eta zientzia politikako ikerketetan, eta horietan azpimarratu da dimentsio komunitarioak gizarte-eraldaketan eta demokratizazioan izan dezakeen eragina Kapitalismo Berantiarak bultzaturiko desberdintasunen aurrean (Telleria, 2010). Baina, gune horietan gazteek duten presentzia eta eginkizuna ez dira hainbesteko sakontasunez analizatu. Ebidentzia bat da gazteen parte-hartze politikoaren joerak bai partaidetza konbentzionaletik bai gizarteko ohiko elkarteetatik urruntzen ari direla. Azterlan batzuen arabera, gazteek gero eta interes txikiago dute politika instituzionalean eta gero eta interes handiagoa instituzioez kanpoko partaidetza politikoan; aldi berean, esparru politiko instituzionalizatuarekin kritiko agertzen dira beren diskurtsoetan (Valle Cabrera eta Muñoz Sánchez, 2009). Izatez, batzuen iritziz, auzia ez da gazte-jendeak politikari buruzko interes gutxiago adierazten duela, politika praktikatzeko beste forma batzuen alde jokatzeko ari dela baizik (Mir-García *et al.*, 2013).

Ildo horretan, gaur egungo gazteen helduarorako trantsizioen dibertsifikazioak, pairatzen duten bizi-ziurgabetasuneko egoerak, desberdintasun sozial gero eta handiagoak (Gaindegia, 2016), eta krisialdi ekonomikoek nahiz zibilizazio-krisialdiek eragin dizkieten ondorio kaltegarriek —esparru globaleko COVID-19aren pandemia eta zaintza-larrialdia, etengabeko gatazka geostrategikoak, klima aldaketaren kolapso-arriskuaren pertzepzioa, besteak beste— bultzatu egin dute eredu-aldaketa hori partaidetza politikoan. Ondorioz, gazteek lehenagotik datozen gizarte-mugimenduetako partaidetza-errepertorio batzuk erabiltzen dituzte gaur —protestak, mobilizazioak, antolaturiko nahiz antolakuntza organikorik gabeko ekintza kolektiboak, edo politika liskartsua, esaterako—, baita ekintza komunitariotik hartutakoak ere eta, zenbaitetan, horien guztien eta partaidetza instituzionalaren arteko formula hibridoak sortzen dituzte praktikan. Ildo horretan, gobernantza-sistema garaikideek batzuetan instituzio publikoen eta komunitate-ekimenen arteko lankidetzari aukera zabaltzen diote (Gorostidi, eta Martínez, 2023). Beste batzuetan, aldiz, herritarren partaidetzara bideratutako administrazio publikoetako mekanismo instituzionalek burokratizatu, instituzionalizatu eta hetsi egiten dute parte-hartze prozesu hori, areago, irizpide neoliberalen arabera antolatzen dute eta korporazio

ekonomikoen eraginari ematen diote lehentasuna prozesuan (Martínez-Palacios, Ormazabal eta Ahedo Gurrutxaga, 2023).

Hari horretatik, aurrerago ikusiko dugun legez, gazte askok konfiantza handiagoa sentitzen dute bizitzatik hurbil dituzten gune sozialetan, eta gune horietan kontzentratzen dituzte sarri beren engaiamendu kolektiboak eta praktikak. Hautaketa horretan, ekintza komunitarioarekin bat egiten dute askotan, ekintza horrek ere lurralde edo ingurune jakin batean elkarrekin bizi direnen lotura sozialak dinamizatzea eta indartzea izaten baitu ezaugarri, pertsonen bizitzak hobetzeko asmoz (Carmona eta Rebollo, 2009). Prozesu komunitarioak herritartasun-loturak eraikitzeke guneak izan ohi dira, bai modu funtzionalean, bai modu sinbolikoan (Llobet eta Cortés, 2006). Horrela, gazteen artean era ez-formalean izaten bada ere, ekimen komunitarioek ingurunearen eraldaketa soziala bilatzen dute, botere-harremanak birformulatzen dituzte (Curto-López eta Huarte, 2023) eta engaiamendu politiko eraberrituak lantzen.

Lehenagotik datozen komunitate sendoak ahulduz joan diren arren, muturreko indibidualizazio neoliberalaren prozesuak ez du komunitatearen premia ezabatu. Baina, komunitate-eratzeari pluralean ulertu behar da, gero eta gehiagotan. Izan ere, dibertsitatearen ezaugarria du berezkoa lotura komunitarioak Modernitate Berantiarrean. Sarritan, komunitatearen bilaketa loturik egon da «hurbileko printzipioaren» erabilerarekin esparru politikoan. Hurbiltasuna modu askotan ulerturik, gaur egunean askotariko ardatzen inguruan (bir)osatzen dituzte herritarrek komunitateak: hurbiltasun ideologikoa, biografikoa eta lurralde partekatua dutenen komunitateak, mendekotasun-egoerak, klase sozialak, etniak, generoak edo kulturak definitutako komunitateak, nazioaren pertenezien, hizkuntza-taldearen, erlijioaren edo beste kidez eta identitate batzuen inguruan eraturiko komunitateak, eta beste asko ditugu gaurko gizarteetan.

Bestalde, identitate ardatz horiek nahasita eta gainjarrita eratzten eta eraberritzen dira aldiro. Halaz ere, partekaturiko osagai komunak daudenean edo sortzen direnean —balioak, helburuak, estrategia eta abar—, askotariko lotura komunitario horiek ez dituzte ezinbestean ukatzen desberdinen arteko elkartasunezko lokarriak eta aliantzak antolatzeke aukerak (Esteban, 2023), ezta hurbilagoko komunitateetatik abiatuz konpromiso eta identifikazio globalak taxutzeko abaguneak ere. Aitzitik, Modernitate Berantiar honetan hurbilekoa eta urrunekoa, tokikoa eta globala, fisikoa eta digitala ez dira kontrajarrita agertzen, hari konplexuz bilbe trinkoetan josirik baizik. Hala, eskala, gai eta izaera askotako komunitate-subjektuak aurkitzen ditugu gaur. Ildo horretan, indibidualizazioari aurre egiteke protesta- eta aldarrikapengune modura sortzen dira komunitateak, baina baita sistema politikoaren aldetik erantzunik jasotzen ez duten beharrian kolektiboari aurre egiteke ere. Ondorioz, arnas luzeko eraldaketa demokratikoaren zantzuak ikusi dituzte batzuek komunitateen gaur egungo eratze-prozesuetan, uste baitute bestelako botere politiko mota baten azaleratzea hauteman daitekeela aipatu dinamiketan (Curto-López eta Huarte, 2023).

Gazte batzuen parte-hartze praktikak ohiko partaidetza-ildo instituzionaletik bideratu dira; hala, sistema politikoaren aktore nagusiak eta ordezkatzeko-sistema politikoa eta haren mekanismoak izan dituzte erreferente —alderdi politikoak, sindikatuak, parlamentuak eta gobernuak, hauteskunde-sistemak eta abar—. Beste gazte batzuen praktikak, berriz, esparru politikoan nahiz esparru politiko nagusitik kanpo kokaturik dauden eta berriki aipatu ditugun agertoki horietako batzuetan gauzatzen dira, hala nola mugimenduetan, protesta-ekintzetan, mobilizazioetan eta komunitate-ekintzetan; gehienetan formula hibridoak eta bitarikoak erabiltzen dituzte horietan guztietan. Liburu honetan arreta berezia eskainiko diegu eraldaketa soziopolitikoak helburutzat duten eta pixkanaka azaleratzen ari diren azken praktika horiei. Praktika multzo hori aktibismo gisa izendatu dugu, eta horixe da hemendik aurrera erabiliko dugun kontzeptua. Militantziaren kontzeptua hizkera arruntean —hortaz, gazteen hizkeran ere— erabiliagoa den arren, uste dugu gehiegi lotuta dagoela organizazio jakin bati buruzko atxikimendu politikoarekin. Horrenbestez, eta kontuan izanik praktika politikoak antolakuntza batzuen barnetik nahiz haien bitartekaritzarik gabe ere burutu daitezkeela, adiera inklusiboagoa duen aktibismoaren terminoa lehenetsi dugu.

## ***1.2. TESTUINGURUKO ABIAPUNTUA. GAUR EGUNGO JOERA SOZIAL ETA KULTURAL OROKORRAK MENDEBALDEAN***

Politikaren ikuspegi zabalagoak eta parte-hartze politikoaren adiera berriak testuinguru sozial jakinean sortu dira. Hain zuzen ere, testuinguru horretan azken hamarkadetan gertatzen ari diren eraldaketa-dinamika batzuek eragin zuzena izan dute esparru politikoaren mugen zabalkuntzan eta haren barneko praktika politikoari lotutako ekintzen eta errepertorioen gehikuntzan. Globalizazio kapitalistaren, indibidualizazio-prozesuaren, eta politika neoliberalen ondorioak, besteak beste, nabarmenak izan dira hala esparru politikoak barnean hartutako dimentsio berrietan nola praktika politikoei esleitutako bestelako esanahietan.

Gaurko gazteen bizipenek eta esperientzia gehienek ez dute antz handirik haien gurasoek eta arbasoek bizi izandakoekin. Izan ere, Modernitate Berantiarra deitutako aroan aldatu egin dira, nola aldatu ere, gazteen bizitzak egituratzen dituzten baldintza sozioekonomikoak, kulturalak eta instituzionalak. Dударik gabe, gaur egungo gizarte aldakorrean gazteen bizi-esperientziak etengabe ari dira mudatzen. Hasiera batean, beren burua prestatzeko gurasoek baino aukera zabalagoa duten arren, helduarorako igarobidea ziurtasunik gabekoa dute eta, ondorioz, sozializazio-prozesu gorabeheratsuak bizi dituzte gurasoen aldean. Lehenagoko gazteen ibilbide lineal samarra hautsi egin da, alegia, ikasketa-aldia, lanbidea, emantzipazioa eta familia sortzea, beste aukera batzuen artean, ez datoz gaur egun behinolako berezko jarraieran. Era berean, helduarorako aurreikusten ziren rolak (soldatapeko langilea izatea eta guraso izatea, adibidez) lausotu egin dira, neurri batean, pertsona gazteen esperientzietan nahiz bizi-proiektuetan. Zalantzarik gabe, helduarorako trantsizioak

zaildu egin dira. Esparru politikoari dagokionez, engaiamendu soziala eta politikoa har dezaten eskatzen dien gizarte-eredu horrek berak ez die neurri berean belaunaldi gazteenei integrazioarako eta ekinbide sozialerako beharrezkoak dituzten baliabideetarako sarbiderik ematen.

Mendebaldeko sistema demokratikoak sustraitik aldatzen ari dira, batez ere boterearen banaketari dagokionez. Dagoeneko, botere politikoa ez dute erabat monopolizatzen estatuek. *De facto*, estatuak lehenago zuten monopolioa galduz joan dira, batez ere erabaki-hartze politiko eta ekonomikoei dagokionez —estatu arautzaileek edo ongizateko estatuak berezko zituztenak—, eta zenbait politikaren inplementatzeari dagokionez —batez ere, ekonomikoak eta merkataritzazkoak—, eta horrek estatu soberanian eragin du. Hitz batean, estatuak pribatizatu egin dira (Goikoetxea, 2017). Estatu-nagusitasunaren galera hori merkatu kapitalista globalen eta haien eragileen faboretan gauzatu da: enpresa transnazionalak, finantza-instituzioak eta merkataritza-interesak daude tartean, horiek dira egungo aktore nagusiak mundu globaleko botere-sareetan. Aldi berean, aldaketa hori herritarren interesen, eskubide soziopolitikoaren eta ongizatearen kaltetan mamitu da.

Neurri batean, lehen botere politikoa kokatzen zen gunea lausotu egin da herritarren begietan, eta herritarrek zailtasun handiagoak dituzte hura identifikatzeko. Horrela, gizarteari gehiago kostatzen zaio sistema politikoaren instituzioak ezagutzea, haien funtzionamenduaren zentzua eta eraginkortasuna ulertzea. Gero eta sarriagotan erabaki asko eta asko estatuetatik at hartzen direnez, gizarte zibilari zailago egiten zaio sistema politikoaren kontrol demokratikoa egin ahal izatea. *Demos* ahuldua duten demokrazietan bizi gara, herri-subiranotasunik gabeko sistema politikoetan. Horren ondorioetako bat da herritarrek gero eta konfiantza gutxiago daukatela sistema politikoaren eraginkortasunean, ez baitute sistema horretan beren ahotsa entzunarazteko mekanismorik aurkitzen. Politikak —eta irudikapen sozialean inplikatzeko duen guztiak, alderdi politikoak, elite politikoak, gobernuak eta abar— irudikapen txarra dauka gizarteko sektore zabaletan, eta, bereziki, belaunaldi gazteenen artean; azken horiek gizartetik urrun dagoen mundu gisa identifikatzen dute esparru politiko nagusia, eskari sozialei itxia eta ustelkeriaz betea. Abstentzio-tasa gero eta handiagoak hauteskundeetan, bozka-aldakortasuna, alderdiek duten afiliazio apala eta lehenagoko tradizio politikoei buruzko leialtasunik eza, gizarteko sektore guztietan azaltzen dira, baina indar handiagoz, behar bada, gazte-jendearen artean, eta urruntze progresibo hori islatzen dute beren jarreretan nahiz jardueretan.

Ondorioz, globalizazio neoliberalaren prozesuek eta estatuaren birkokapenak botere globalaren sare pribatizatuetan eta konplexuetan herritartasuna eraikitze praktika berriak ekarri dituzte; forma horiek estatuari lotutako herritartasun formalaren definizioetik aldentzen dira, gero eta gehiago. Herritartasuna, paradigma liberalaren arabera, maila indibiduala eta estatuaren ordenamendu politikoa elkarrekin erlazionatzen dituen osagaien multzoa izan da —zehazki, eskubide eta betebeharren multzoa—. Ikuspegi hori, baina, errotik eraldatu da globalizazioaren garaian, halako

moldez eraldatu ere, non, eskubide formaletatik harago —eta eskubide horien gainbeheraren ondorioz—, lotura eta pertenezia politikoa ulertzeko askotariko dinamika ez-formalak sortu diren, eta, hartara, askotariko herritartasun-aktore ez formalizatuak. Azken horiek bestelako praktikak eta alternatibak garatzen dituzte, askotan, sistema politikoak ezarritako bide instituzionaletatik kanpo.

Esan bezala, Kapitalismo Berantiarraren aktore ekonomiko nagusiek estatuen bitartez ezarritako austeritate-politiken aplikazioak estatu arautzailea ahultzea eragin du, eta estatu mota horrek aitortzen zituen eskubide sozialek atzera egitea. Horrez gain, dagoeneko estatuak arautzen ez duten lan-merkatuak ere eraldatu ditu, sustraitik, eskubideok. Halako moldez non, joan den mendean pertsonak izaten zituzten bizi-ibilbide, gutxi gorabehera, linealak eta, neurri batean aurrez ikusteko modukoak —prestakuntza, lan-merkatuan sartzea, lan egonkorra lortzea, emantzipazioa, familia berrien osaketa eta abar— ez diren lehen bezala garatzen. Izan ere, estatu arautzailea ahultzeak eta produkzioan ezarri diren politika post-fordistek ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna ekarri dituzte gaurko gizarteko pertsona askoren bizitzetara. Joan den mendearen amaierara arte soldatapeko lanak markatzen zuen helduarorako igarobidea, eta lanak —enplegu egonkorrak— zabaltzen zizkion herritarrari autonomia eta herritartasuna bera lortzeko ateak. Baina, baldintza hori, alegia, enpleguaren egonkortasuna lortzea, gero eta zailagoa da orain. Ondorioz, segurtasunik ezak eta zaurgarritasun-egoerak, ezegonkortasunak eta norbere bizitzaren gaineko kontrolrik ezak, zaildu egiten dute konpromiso kolektiboak eta politikoak hartzea.

Testuinguru horretan hainbat aldaketa ari da gertatzen. Lehenik eta behin, Modernitate Berantiarrean norbanakoaren eta instituzioen arteko harremana berriz definitzen ari dela ikusten dugu (Dubet, 2002). Izatez, instituzioen sozializazio-gaitasuna ahuldu egin da gaur egunean, eta antolaketaerako konpromisoek garrantzi txikiagoa dute estrategia indibidualen aldean, batez ere gazteen artean (Rossi, 2009). Hori dela eta, norbanakoa ekintzaren azken erreferentzia bihurtzen ari da aldi honetako kulturean. Bigarrenik, kontuan hartu behar da gazteen trantsizioak garatzeko baldintza berriek zer eragin duten gazteek politika instituzionalarekin dituzten harremanetan. Gizartean integrazteko prozesuetan gazteek aurre egin behar diete gero eta zalantza eta zailtasun handiagoei —bizi-prekarietatea pairatzea eta bizi-itxaropenak zapuzturik ikustea gero eta ohikoagoa da— (Côté, 2014; Benedicto, 2014) eta, hein batean, horrek azaltzen du gazte-jendea protagonismoa eta presentzia ukatzen dien politika mota batetik aldeni izana; izan ere, politika eredu hori beren bizi-ibilbideei zentzua ematen dieten esperientzietatik erabat urrun sentitzen dute gazteek (Harris, Wyn eta Younes, 2010).

Ildo berean, politika konbentzionaletik eguneroko bizitzako errepertorio indibidualizatueta egin den jautzia koherentea da politika neoliberalak bultzatu duten herritartasun motarekin. Hari horretatik, erretorika neoliberalak inplikazio esanguratsuak izan ditu, bai pertsonen subjektibotasunaren osaketan, bai pertsona horien parte-hartze soziopolitikoaren eredueta. Izan ere, egitura sozialek pertsonengan

gorpuzturik funtzionatzen dute beti. Hautatzeko askatasunaren eta erantzukizun indibidualaren diskurtsoen bitartez, kultura neoliberalak balio jakin batzuen barruan ulertzen du herritartasuna: autokontrolaren, kudeaketaren eta ekintzaitzaren barruan, hain zuzen ere. Ondorioz, gaur egungo herritarraren ideal hegemonikoa herritar autonomoa, arrazionala, arriskuen kudeatzailea eta bere patuaren erantzulea da. Hala, pertsonak beren ongizatearekin lotutako hainbat erantzukizun hartu behar dute beren gain, nola eta, merkatuan parte hartuta, ez sistema politikoak eskubideak aitortzen dizkielako. Modu horretan, subjektibotasun neoliberalaren logikak baldintza egokiak sortu ditu kontsumoari, aisialdiari eta eguneroko bizitzari lotutako hainbat eta hainbat jarduera informal pertsonen jarduera politikorako gune bihurtzeko.

Horrenbestez, esan genezake egungo sistema sozialak oztopo ugari jartzen dizkiela gazteei beren bizi-proiektuak eraikitzeko prozesuan eta, orobat, subjektu autonomo gisa garatzeko ahaleginean. Azken batean, horrek gazte asko ziurgabetasunera eta mendekotasun-estaturera zigortu ditu. Aipatu oztopo horien artean nabarmenak dira lan-merkatuan sartzeko zailtasunak, enplegu iraunkorrari eusteko ezintasuna, bizitza duina bermatzeko besteko soldaten lorpena edo emantzipazioa bideratuko lukeen etxebizitza eskuratzeko. Eragozpen horiek are handiagoak dira gazte-kolektibo batzuentzat, alegia, jatorri sozial apaleko pertsonentzat, neskentzat, kapital kultural gutxiago dutenentzat eta etorkin-estatura nahiz arrazializazioa nozitzen dutenentzat; oro har, zaurgarritasun-egoera larrienean bizi diren gazte guztientzat. Hala, kapitalismoaren eredu neoliberalak eta produkzio forma post-fordistak eragotzi egiten diote gazte-jendeari ohiko emantzipazio ekonomikorako eta autonomiarako bidea erraz garatu ahal izatea. Are gehiago, herritartasun osorako bideak ixten dizkiotenean, konpromiso kolektiboak eta politikoak hartzeko ahalmenaren garapena ere ukatzen diote.

Halatan, instituzio politikoek eginkizunak eta eraginkortasuna zalantzan jartzen dituzte herritar askok. Azterlan batzuek desinstituzionalizatze orokorraren barruan kokatzen dute instituzio politikoek eraginkortasunaren galera. Izan ere, antzeko prozesuak gertatzen ari dira Lehen Modernitateetik heredatu diren beste instituzio sozial batzuetan ere —familia, eskola, erlijioa, ekonomia eta abar—; izena mantentzen duten arren, instituzio horiek ezin dituzte dagoeneko bete beste aro baterako esleiturik zeuzkaten zereginak eta ez dago batere argi zein betekizun izan behar duten mudakorra den aro honetan. Nolanahi ere, joera horien testuinguruan, gazteek norberaren errealizazioa bilatzen dute gero eta gehiago, eta eguneroko bizitzako jardueretan zentratzen dira beren erabakiak hartu eta beren autonomia garatu ahal izateko, arrotz sentitzen dituzten instituzioetatik gero eta gehiago urrunduta.

Bestalde, instituzioen gainbeherari lotuta, ezin da aipatu barik utzi balio desberdinen arteko lehiak eta gatazkak bizi gaituela gaur eta, testuinguru horretan, gero eta zailagoa dela belaunaldi gazteenei aurreko belaunaldien balio sendoak

eta rolak helaraztea. Sozializazioa —sozializazio politikoa barnean harturik— belaunaldien arteko transmisio kulturala baldin bada, esan genezake prozesu horrek zulo ugari dituela gaur egun. Ildo horretan, ohiko sozializazio-erakundeen agente-indarra —famiariena, eskolariena, alderdi politikoena eta abarrena— ahuldu egin da. Askotariko arau eta balio sozialak dituzten gizarte-ereduetan bizi gara orain. Ondorioz, erlatibismoa ere garatu da kulturen, indar handiz gainera belaun gazteenetan. Aniztasuna nagusi den gaurko munduan beti ez dago argi zein den jokabiderako arau edo erreferentzia-puntu nagusia, zer dagoen gaizki eta zer ongi, zer den zilegi eta zer ez. Halakoetan, instituzioen agintearen orde, pertsonen hautua lehenesten da sarritan bizitza erregulatzeko. Hemen aletu diren aldaketa-prozesuen guztien ondorioz, gizarteko instituzioak —aipaturiko familia, eskola, gobernu-erakundeak, alderdi politikoak, elizak eta beste batzuk— ahulduta agertzen dira eta, behin baino gehiagotan, ez dira gai egungo arazo sozial askori eraginkortasunez aurre egiteko, tartean gazteen premiei eta interesei. Horren ondorioz, maiz, pertsona gazteek baliagarritasun mugatua ikusten diete gizarteko instituzio nagusiei eta haietatik eratorritako ekimenei eta balioei.

Beraz, faktore sozioekonomikoez gain, Modernitate Berantiarreko aldaketa kulturalak ere eragin dute egungo gazteen bizi esperientzietan. Garaiotan, indibidualizazioaren aldeko joera kulturalak ari dira nagusitzen, ez indibidualizazioa pertsonen berezko aukera delako, sistema sozial jakinak ezarritako arau bilakatu delako baizik. Izan ere, indibidualizazioa egiturazko ezarpena da, ez norbanakoen berekoikeriaren aldeko hautu librearen emaitza. Horrela, ustezko erabaki indibidualak gero eta gehiago nagusitzen zaizkie behinolako instituzio sozial arautzaileei, eta banakoak bere erantzukizunpean hartu behar ditu, halabeharrez, bere bizitzaren kudeaketa eta gobernua. Arestian aipatu dugunez, instituzio politikoak ez dira salbuespena instituzio sozial nagusien krisi orokor horretan. Horrenbestez, instituzio politikoek herritarren artean sortutako mesfidantza gero eta handiagoa sistema politikoaren legitimazio sozial eskasean islatu da azken urteotan.

### ***1.3. ABIAPUNTU METODOLOGIKOA. IKERKETA KUALITATIBOA ETA GAZTEEN AHOTSAK***

Gogoeta kontzeptualean ikusi dugunez, testuinguru sozialak aldatu ahala, politikaren kontzeptua eta parte-hartzearen kontzeptua behin eta berriro definitzen ari dira aztertzaileak beren lanetan. Aldatze-prozesu bete-betean dabilen esparru sozial batez ari garenez, ikusten dugu politikaren definizio teorikoa bera eta haren hedadura eztabaidagai direla gaur egungo azterketa soziologiko eta politologikoetan. Interpretazio desberdinek gazteen eta politikaren arteko gaur egungo harremana ulertzeko moduak baldintzatzen dituzte, jakina. Eta auzi hori ez da hutsala. Bada, gogoeta kontzeptualean aipatu diren ikuspegi desberdinek ondorio teorikoak ez ezik, inplikazio metodologikoak ere badauzkate.

Ildo horretan, maiz, bereziki inkestetan eta azterketa soziologiko kuantitati-boetan, aldez aurretik definituta ematen zaizkie gazteei politikaren zentzu eta ulerkera jakinak egindako galdera-erantzun itxietan. Eta horrek eragina izan ohi du azterketen ondorioetan eta, beraz, gazteei buruz zabaldutako irudikapen sozialetan. Askotan, gazteen apatia, desafekzio politikoa eta politikari buruzko indiferentzia aipatu dira azterlan kuantitatiboen emaitzetan baina, seguruenik, oharkabean gelditu dira ustezko apatia politiko horren atzean egon litezkeen politikari eta parte-hartze politikoari buruzko definizio inplizituak. Horrela, galdetegietan inplizituki hartzen diren definizio horiek gizartean hegemonikoak diren irakurketak inplikitzen dituzte, behin baino gehiagotan. Hartara, gizartean eta gazteen artean jakintzat jotzen diren definizioak eta esanahiak azaleratzeko beharrezana dagoela uste dugu. Gazteen parte-hartze politikoaren analisisian positibismo logikotik egindako lanak nagusi diren arren, badaude konstruktibistagoak diren beste ikuspegi batzuk, teknika kualitatiboak erabiltzen dituztenak.

Orain arte egindako azterketa kuantitatiboen emaitzek osatzeko eta argitzeko asmoz, ikerketa-teknika kualitatiboen aldeko hautua egin dugu lan honetan. Izan ere, belaunaldi gazteenek politikagintzari, parte-hartze politikoari, konpromisoari eta aktibismoari esleitzen dizkieten esanahiak ezin dira beti jaso inkestetan —esaterako, Euskal Erkidego Autonomoan urtero egiten diren *Gazteen Argazkiak* txostenetan, Espainiako esparruan lau urterik behin osatutako *Informe Juventud en España* delakoan edo Europako Parlamentuko *Eurobarometer Youth Survey* izeneko inkestetan—. Horiek horrela, estrategia kualitatibotik abiatzeak zera eskatzen du, gazteak agenzia sozial modura hartzea eta haien ahotsak jasotzea. Ariketa hori eginez, adin eta kokapen sozial desberdinetako pertsona gazte batzuen ikusmolde eta praktika politikoei buruzko narratibak ematen dira argitara lan honetan.

Baina, gazteen ikusmolde eta praktika politikoak soilik ez, belaunaldi gazteenen gaur egungo testuinguru soziopolitikoaren eraginak ere jakin-mina sortzen du ikertzaileon artean. Alde batetik, arestian aipatu ditugun joera sozial orokorrak gero eta nabarmenagoak dira Euskal Herriko gizartean. Beste alde batetik, ETAre jardunaren osteko Hego Euskal Herriko politikagintza bestelako ziklo batean sartu denez, agertoki politiko eraberrituak nahiz aukera politiko berriak ere agertu dira gazteentzat. Hartara, abagune horretan iruditzen zaigu interes zinez handia duela belaunaldi gazteenen sozializazio politikoa eta haien ondorengo jardun politikoa, —bereziki gazte ekintzaileen bilakaera— nahiz jardunik eza ere aztertzeak.

Gazteen parte-hartze politikoaz eta aktibismoaz gain, sozializazio politikoak ere arreta berezia jaso du gure azterketan. Izan ere, parte-hartze politikoaren edo parte-hartzerik ezaren hastapenetan ikaste-prozesu konplexua garatzen da, ezinbestean. Ikasketa edo sozializazio politiko horrek baditu, izan, berezitasunak. Parte-hartze politikoa bera eta haren adierazpenak jokoera ikusgarriak dira, gutxi gorabehera, gazteak modu errazean identifika ditzakeenak. Ikasketa politikoa, ordea, zailagoa da atzemateko; hein batean, behintzat, protagonisten kontakizunen bitartez, zeharka,



berreraiki behar den prozesua dugu. Bada, sozializazio politikoa ez da, sarritan, ikasketa formala, ez-formala baizik. Gehienetan modu ez-kontzientean eta oharkabean gauzatzen da, familiaren, eskolaren, lagun taldeen, inguruko komunitate hurbilaren, masa-hedabideen, Interneten eta bestelako eragileen eraginez. Bestalde, bestelako sozializazio-prozesu orotan argi ikusten den bezala, ez da norabide bakarreko —hau da, goitik beherako— eragina izaten; aitzitik, gizartearen eta norbanakoaren arteko dialektika gauzatzen da prozesuan. Horrela, sozializazio politikoa pentsamolde, balio, arau, jarrera eta jokabide batzuen transmisioa eta barneratzea da, batetik. Eta pertsonaren eztabaiden, interakzioen, praktiken eta esperimendazio aktiboaren ondorioa, bestetik. Hitz batean, beste edozein ikasketa-prozesu bezala, sozializazio politikoa hori belaun arteko transmisioa hutsa baino askoz harago joan ohi doa.

Izatez, norbanakoak subjektu aktibo bilakatu ohi dira beren ikasketa eta esperimendazioetan, bereziki nerabegarotik aurrera. Une honetan ez dugu informazio eta datu handirik euskal gazteek subjektu aktibo gisa hainbat testuinguru sozialetan gaur egun garatzen duten ikaste politikoaren eta ondorengo esperimendazioaren zer-nolakoaz. Jakin badakigu ikasketa horiek ez direla ikasketa —soilik— formalak izaten eta ez zaizkigula begien bistan argiki agertzen. Baina, ez ditugu xehe-xehe ezagutzen aipatu prozesuen mekanismoak, ezta zein faktorek eta zein neurritan baldintzatzen dituzten ere. Bestalde, arestian aipatu dugunez, ez dugu zehatz ezagutzen gazteek zer esanahi ematen dieten beren eguneroko nahiz mundu publikoko jardunei, zeri esleitzen dizkieten esanahi politikoak eta zeri ez, zer ulertzen duten politikaz eta nola bizi duten hura. Horiek horrela, gazteen sozializazio politikoaren mekanismoak eta ikasketa horren ondorioz burututako praktikak —parte-hartzea, partaidetzarik eza, aktibismoa...— identifikatu ahal izateko ezinbesteko lana da hainbat prozesu kultural sakon aztertzea, eta gazteen bizipenetatik abiatzea, besteak beste, esperientzia politikoei atxikitzen dizkieten esangurak jasotzeko. Horixe da, hain zuzen ere, ikerketa honen helburuetako bat.

Hego Euskal Herriko lurralde administratiboetan egindako azterketa kuantitatiboek, baita Espainiako nahiz gainerako nazioarteko ikerketa ugari ere, antzeko joerak iradokitzen dituzte Mendebaldeko gazteen parte-hartze politikoari dagokionez. Gazteak —helduak bezala, bestalde— politika instituzionaletik urruntzen ari dira, gero eta gutxiago identifikatzen dira instituzio politikoekin eta politikariek, eta auzi kolektiboek buruzko deskonexioa erakusten dute... Sarri askotan hedabide hegemonikoetan, politikarien artean eta gizarte imajinarioan errotutako «gazteriar» buruzko irudikapenek ere datu horietan agertutako joerak indartzen laguntzen dute. Beste edozein kolektibo sozialetako irudiekin gertatzen den antzera, asko dira gizartean indarrean dauden gaur egungo gazteei buruzko aurreiritziak eta estereotipoak: gazte berekoi, politikoki pasibo edo axolagabe gisa deskribatzen zaizkigu frankotan gazteak imajinario arrunt horretan.

Baina, zer esanahi esleitzen diote gazte(kolektibo)ek politikari? Zer da haien ikuspegiaren interes politikoa eta interesik eza, konpromisoa eta deskonexio politikoa,

eta zer jarreratan eta jardueratan gauzatzen dira horiek guztiak? Nola eta noiz hasten dituzte beren ikaste politikoak eta zer ondorio daukate gerora?

Galdera horien kariatara, gazteen eta politikaren arteko harremanaren zentzuari argitasuna eman diezaioketen abantaila batzuk ditu metodologia kualitatiboak. Izan ere, metodologia kualitatiboak aukera handiagoak ematen ditu aktibista gazteek politikarekin dauzkaten erlazioak identifikatzeko eta, beren ikusmoldeen eta praktiken kontakizunaren bidez, haien zat politikak hartzen dituen esanahiak azalertzeko (O'Toole, *et al.*, 2010; Carmouché, 2012). Adibidez, «herritartasun» kontzeptua ez da pertsona gazteen eguneroko hizkeraren parte izaten (Lister *et al.*, 2003). Eta litekeena da inkesta bateko galdetegian gazteei horretaz galdetzeak informazio zuzenik ez ematea. Beraz, gazteen herritartasun motak identifikatzeko haiek berek, beren hizkera erabilia, modu librean sortutako diskurtsoetan arakatu behar da, eta haietan txertaturik dauden interpretazioak identifikatu. Ildo beretik, aurrerago ikusiko dugunez, antzeko arazoak gertatzen dira «parte-hartze politiko» kontzeptuarekin edo beste batzuekin. Bada, inkestetako galdetegietan ohikoa den «parte-hartze politiko» kontzeptuari hainbat esanahi erantsi dakizkioke. Baina, azterketa kuantitatiboan ezin daiteke jakin elkarrizketatuak bere erantzunean inplizituki emandako adiera. Kasu horietan guztietan, ikertzaileek abiapuntutzat hartutako aurredefinizioek baldintzatu egin dezakete emaitza.

Laburbilduz, metodologia kualitatiboak lagundu egiten du soziologiaren edo politologiaren hizkuntza zientifikoa erabilitako kontzeptuen eta herri-ezagutzan erabilitakoen artean —*common sense knowledge* edo «zentzu komuneko ezagutza» delako horretan— dauden bateraezintasunak gainditzeko, aktore sozialen berezko diskurtsoaren analisiaren bitartez. Horretarako, ikertutako pertsonen agentzia-funtzioa aitortzen zaie ikertzailearen eta ikertuaren arteko komunikazio dialogikoan.

Auzi horri loturik, bigarren gogoeta metodologiko bat ere badago estrategia kualitatiboaren hautaketaren atzean. Ikerketa honetan aztertu diren gazteen praktika politiko asko politikagintza «konbentzionaletik» at garatu dira, hau da, parte-hartze instituzionaletik aparte, aktibismoaren edo komunitate-esparruaren logikapean. Kokapen horrek eskuarki aztertzen diren esparru publiko instituzional hegemonikotik landa ez ezik, zenbaitetan, legearen eta legitimitate nagusiaren ertzetan ere kokatu ditu politikoki gazteok. Hala, aintzat harturik lan honetan «herritartasun disidentearen» formak ere (Sparks, 1997) aztertuko direla politikoki nagusi diren narratiben eta kultura kontrahegemonikoen arteko tentsio-testuinguru batean, uste izan dugu egokiagoa dela metodologia kualitatiboa bazterretan daudenen diskurtso heretikoak atzemateko. Izatez, beste lan batzuetan ere ikerketa kualitatiboa komenigarri eta emankor jo da azalertzeko ari diren gazteen partaidetza politiko berriak identifikatzeko (Stolle *et al.*, 2008; Chrysochoou eta Barrett, 2017) baita era guztietako esparru politikoetan —formaletan nahiz ez-formaletan, legitimoetan nahiz bazterrekoetan— egindako ibilbide edo «karrera politikoak» ikuskatzeko ere.

Agrikolianskyk «karrera militanteen» kontzeptuaren azterketan gogoratzen duen bezala, soziologiak aktibisten sekuentzia biografikoak berreraikitzen lagun dezake, baita konpromiso-prozesuak nola garatzen diren aztertzen eta aktoreek beren hautuei ematen dieten zentzua atzematen ere. Jakina, horrek ez du esan nahi analisi soziologikoaren ordezkariak soilak erabili behar direnik. Aitzitik, askotan aktoreen kontzientziatik kanpo dauden prozesu sozialak ulertzeak deskribapenetik harago joatea eskatzen du (Agrikoliansky, 2017). Hartara, metodologia kualitatiboa erabilita ere, ulermen soziologikoak aztertutako prozesuen analisiak eta interpretazioak proposatzea dakar berekin, Bourdieuk bere garaian salatu zuen «ilusio biografikoan» gelditu gabe (Bourdieu, 1986). Izan ere, aktibisten konpromisoak prozesu gisa hartu behar dira, eta prozesu horiek denbora-, espazio- eta elkarrekintza-testuinguru sozial jakin batzuetan garatzen dira.

Estrategia kualitatiboari jarraikiz, bi ikerketa-teknika erabili dira datuak sortzeko: elkarrizketa sakonak eta eztabaida-taldeak. Ikerketaren laginari dagokionez, 40 elkarrizketa sakon eta 4 eztabaida-talde egin dira EAEn eta Nafarroan, konpromiso zibiko-politikoaren forma eta maila desberdinak dituzten gazteen artean. COVID-19aren pandemiak sortutako etenaldiaren ondorioz, elkarrizketak bi fasetan gauzatu dira. Hala, 31 elkarrizketa 2018-19. urteetan burutu dira eta beste 9 elkarrizketa 2022. urtean. Guztira, 63 pertsonaren ahotsak geratu dira jasota landa-lan horren emaitza gisa (Larrinaga *et al.*, 2020; Larrinaga *et al.*, 2021).

Elkarrizketen kopuruari baino ez badiogu erreparatzen, laginaren tamaina litzateke, itxura batean, azterketa kualitatibo honen mugetako bat. Haatik, ikuspegi kuantitatibo hutsaren arabera lagin mugatua izan arren, intentziosko hautaketaz osaturiko informatzaile kualifikatu gutxi batzuen bitartez oraindik ia esploraturik gabe dagoen ikerketa-esparrua zabal dezakegulakoan gaude; horrela, eremu horretan gaur egun agertzen diren galdera batzuei erantzuten has gaitezkeela uste dugu. Hain zuzen ere, azterketa-esparru horren barnean sartzen dira gaur egungo euskal gizartea ulertzeko gako batzuk, esaterako, gazte aktibisten ikaste politikoa zelan garatzen den ETaren osteko garaian, zelango partaidetza eta herritartasun moldeak azaleratzen ari diren gazteen artean gaur egunean, ezkerreko esparru nazionalistako aktibismoan gertatutako aldaketak, edo gazteen interesik ezaren atzean dauden zergatiak.

Nolanahi ere, aipatzen ari garen ildoan, hainbat ikerlanek erakutsi dute lagin kualitatibo txikien nahikotasuna emaitza sendoak eta esanguratsuak atzematuko, zenbait baldintza betetzen badira (Crouch eta McKenzie, 2006; Young eta Casey, 2018). Baldintza horietatik garrantzitsuena diskurtsoen esanahi-unitateen asetasun-mailara edo errepikapenera heltzea da, horrek gai nagusien eta beren dimentsioen identifikazio egokia ahalbidetzen baitu. Ildo horretan, asko dira, orain artean gazteei eta politikari buruz egindako azterketak, lagin kualitatibo txikietatik abiatuak ere (Ferret, 2014; Manning, 2014; Velte, 2018) emaitza oparoak eskaini dituztenak.

Arestian esan dugunez, metodologia kualitatiboak ez du helburutzat hartzen laginaren adierazgarritasuna, azterketa kuantitatiboetan gertatzen den bezala. Hemen ez dago neurketarik eta azterketa estatistikorik. Halaz ere, ahalegina egin da elkarrizketan eta eztabaida-taldeetan sortutako diskurtsoak ahalik eta askotarikoenak eta aberatsenak izan daitezten. Askotariko ikuspegiak jasotzeko, apropos egindako lagina edo lagin intentzionala osatu da ikerketaren diseinuan. Hala, «gazte politizatuen» artean hainbat erakunde, mugimendu sozial eta ekimen komunitariotako parte-hartzaileak hartu dira kontuan; eta beren burua «gazte ez-politizatutzat» jo dutenen artean ere, interes eta inplikazio kolektiboko maila desberdinak aurreikusi dira. Xede berak gidaturik, engaiamendu-mailaz eta motaz gain, hainbat aldagai soziodemografiko hartu da kontuan lagina osatzean. Izan ere, gazteen kokapen sozialak baldintzatu egiten ditu gizarte-mundua —eta kasu honetan, esparru politikoa— ulertzeko, bizitzeko eta sentitzeko erak. Adinetik, generotik, klase sozialetik eta halako kokapenen elkarguneetatik unibertso sozialari buruzko begirada jakinak sortzen dira.

Horrenbestez, lagina osatu duten gazteak ez dira ausaz hautatu ikerketa honetan. Aitzitik, ikerketako parte-hartzaileen profilen aniztasuna bilatu da. Hain zuzen ere, kokapen sozialaren honako faktore baldintzatzaileak hartu dira aintzat. Lehenik, gazteen adina. Bigarrenik, sexu/generoaren aldagaia. Hirugarrenik, klase soziala. Laugarrenik, gazteen komunikazio-hizkuntza. Bosgarrenik, lurralde-jatorria ere kontuan hartu da parte hartu duten gazteen artean. Azkenik, landa-eremuaren eta hiri-eremuaren arteko oreka bilatu nahi izan da. Horrenbestez, hiriburuetakoa eta hiri handietako biztanleekin batera, landa-munduko gazte batzuk ere sartu dira laginean. Ondorengo bi tauletan agertzen dira zehaztuta, hurrenez hurren, elkarrizketa sakonen laginaren eta eztabaida-taldeen laginaren zehaztasunak.

**1. taula. Laginaren profilak: elkarrizketa sakonak.**

<b>Identi- fikazioa</b>	<b>Urtea</b>	<b>S/G</b>	<b>Adina</b>	<b>Tokia</b>	<b>Hizkuntza</b>	<b>Alderdi, erakunde, mugimendu edo aktibismo-guneak (bizi- ibilbidean)</b>
E-1	2018	E	32	Lasarte	Euskara	Ikasle-erakundea, talde feminista, sindikatu abertzalea
E-2	2018	E	25	Mungia	Euskara	Gazte-asanblada, EHko esparruko gazte-erakunde politikoa (alderdia), Erabakitzearen aldeko mugimendua
E-3	2018	E	30	Gernika	Euskara	Gazte-mugimenduak, gune autogestionatua,
E-4	2018	E	25-30	Santurtzi	Euskara	EHko esparruko gazte-erakunde politikoa (alderdia), talde feminista
E-5	2018	G	32	Bilbo	Gaztelania	Auzo bateko konpartsa
E-6	2018	E	20-25	Bilbo	Gaztelania	LGTTBI+, ikasleen kontseilua
E-7	2018	E	23	Gasteiz	Euskara	Errefuxiatuen harrerarako elkarte
E-8	2018	G	25-30	Barakaldo	Gaztelania	Gizarte-bazterketaren aurkako eta eskubide sozialen aldeko plataforma, estatu-esparruko alderdi politikoa
E-9	2018	E	23	Urnieta	Euskara	Arrazakeriaren aurkako erakundea, eliza katolikoaren erakundea
E-10	2018	E	25-30	Irun	Gaztelania	Estatu-esparruko gazte-erakunde politikoa (alderdia), beste elkarte batzuk
E-11	2018	G	25-30	Gasteiz	Gaztelania	Estatu-esparruko gazte-erakunde politikoa (alderdia), erakunde zibikoa
E-12	2018	G	25-30	Eibar	Euskara	Estatu-esparruko alderdi politikoa
E-13	2018	G	18	Donostia	Euskara	EHko esparruko gazte-erakunde politikoa (alderdia), herri-mugimenduak
E-14	2018	G	20-25	Bilbo	Euskara	EHko esparruko gazte-erakunde politikoa (alderdia)
E-15	2018	G	25-30	Sesma	Gaztelania	Talde ekologista, EH esparruko alderdi politikoa (alderdia), jaietako konpartsa
E-16	2018	G	35	Bilbo	Euskara	Trantsizio sozioekologikorako erakundea
E-17	2018	E	28	Iruñea	Euskara	Gazte-asanblada, ikasle-erakundea, EHko esparruko gazte-erakunde politikoa (alderdia), erakunde feminista
E-18	2018	G	20	Berriozar	Euskara	Ikasle-erakundea

E-19	2018	G	30-35	Donostia	Euskara	Aktibismo digitala, prentsa euskalduna, Donostiako jai-elkarte herrikoia
E-20	2018	G	25-30	Gasteiz	Euskara	Ikasle-erakundea, EHko esparruko gazte-erakundea (alderdia), gaztetxea, etxe-talde okupatua
E-21	2018	G	27	Amezketeta	Euskara	Herri-mugimenduak, euskararen aldeko elkarte
E-22	2018	E	25	Orereta	Euskara	Gazte-mugimenduak, kooperatiba-erakundea
E-23	2018	G	25-30	Donostia	Euskara	«Ez-politizatua»
E-24	2018	E	26	Bilbo	Gaztelania	«Ez-politizatua»
E-25	2018	E	28	Donostia	Euskara	«Ez-politizatua»
E-26	2018	G	19-25	Bilbo	Gaztelania	«Ez-politizatua»
E-27	2018	G	26	Gasteiz	Gaztelania	«Ez-politizatua»
E-28	2018	E	25-30	Iruñea	Gaztelania	«Ez-politizatua»
E-29	2018	G	25-30	Iruñea	Gaztelania	«Ez-politizatua»
E-30	2018	E	21	Basauri	Euskara	«Ez-politizatua»
E-31	2018	E	20	Lagran	Gaztelania	«Ez-politizatua»
E-32	2022	E	21	Aretxabaleta	Euskara	Talde feminista
E-33	2022	E	18	Meñaka	Euskara	EHko esparruko gazte-erakunde politikoa (alderdia)
E-34	2022	E	25	Orereta	Euskara	EHko esparruko gazte-erakunde politikoa (alderdia)
E-35	2022	G	23	Bilbo	Euskara	EHko esparruko gazte-erakunde politikoa (alderdia)
E-36	2022	G	21	Arbizu	Euskara	EHko esparruko gazte-erakunde politikoa
E-37	2022	G	21	Hernani	Euskara	Ikasle-erakundea
E-38	2022	E	32	Bilbo	Euskara	EHko esparruko sindikatua
E-39	2022	X	27	Donostia	Euskara	EHko esparruko gazte-erakunde politikoa (alderdia), LGTBI+, kooperatiba-erakundea
E-40	2022	G	22	Sopela	Euskara	EHko esparruko gazte-erakunde politikoa (alderdia)

Iturria: Autoreek egina.

**2. taula. Laginaren profilak: eztabaida-taldeak.**

<b>Tokia: Iruñea</b>
Iruñean bizi diren 18-30 urte arteko lau neskek eta lau mutilek hartu dute parte. Ez dute inoiz botoa eman: lauk politikan eta politikagintzan interesik ez dutelako, eta beste laurek egungo politikagintza gogoko ez dutelako. Edonola ere, agertzen dute nolabaiteko interesa, eta protesta edo manifestazioren batera joan dira, inoiz. Gaztelaniaz egin da.
<b>Tokia: Donostia</b>
Donostialdean bizi diren 18-30 urte arteko lau neskek eta lau mutilek hartu dute parte. Noiz edo noiz, botoa eman izan dute guztiak, baina inoiz abstenitu ere egin dira eta hautu politikoa aldatu izana onartzen dute: batzuek eskuina-ekzerra ardatzaren barnean eta besteek euskal-espainiar nazionalismoaren ardatzean. Elebitan egin da, euskaraz eta gaztelaniaz.
<b>Tokia: Gasteiz</b>
Gasteizen bizi diren 18-30 urte arteko lau neskek eta lau mutilek hartu dute parte. Hainbatetik ez dute inoiz botoa eman; besteek aldizka bai, eta elkarte ez-politikoren batean ere hartu dute parte inoiz (hots, elkarte kultural, sozial, erlijioso edo laguntza-elkarteren batean; ez ditugu aintzat hartu hemen kirol-taldeak edo haurtzaroan/nerabezaroan eskolaz kanpo egin dituzten jarduerak). Gaztelaniaz egin da.
<b>Tokia: Bizkaiko Ezkerraldea</b>
Bizkaiko Ezkerraldean bizi diren 18-30 urte arteko lau neskek eta lau mutilek hartu dute parte. Ez dute inoiz botoa eman: lauk politikan eta politikagintzan interesik ez dutelako, eta beste laurek egungo politikagintza gogoko ez dutelako (edonola ere, agertzen dute nolabaiteko interesa, eta protesta edo manifestazioren batera joan dira, noiz edo noiz). Gaztelaniaz egin da

Iturria: Autoreek egina.

**1.4. AZTERLANAREN HELBURUAK ETA EGITURA****1.4.1. Helburuak**

Orain arte esandakoak esanda, ez da zaila ulertzea aurrean dugun ikergaiak ertz ugari dituela eta haren azterketak hainbat dimentsio aintzat hartzea eskatzen duela. Alderdi edo dimentsio horiek guztiak laburbilduta, jarraian aipatuko ditugun helburuetan aletu daitezke. Azterlanaren xede nagusia da Hego Euskal Herriko egungo testuinguru soziopolitikoan belaunaldi gazteen sozializazio politikoan parte hartzen duen zenbait mekanismo aztertzea, eta ikasketa-esperimentazio horren ondorioz kokapen desberdinetako gazteen artean gauzatzen ari diren praktika politikoak —haien omisioa barne hartuta— identifikatzea eta azaltzea, bereziki praktika aktibista berritzailetzat har daitezkeenak. Helburu hori bi alderditan gauzatuko da. Alde batetik, gaiaren jorraketa teorikoan. Eta, beste alde batetik, landutako abiapuntu teorikotik analizatutako kasu-azterketan, alegia, Hego Euskal Herriko gazte-profil batzuek politikarekin eta, zehazki, jarduera aktibistarekin daukaten harremanaren analisisian.

Helburu orokor horri begira, beste helburu espezifiko hauek ere definitu eta zehaztu ditugu lanaren diseinua egitean. Lehenik, gatazka armatuaren osteko testuinguruan, Hego Euskal Herriko hainbat eremutako gazteek beren ikasketa eta esperimentazio politikoen gainean dituzten pertzepzioak jaso eta aztertu nahi ditugu. Bigarrenik, gazte mota desberdinen ikasketa politikoean sakontzea dugu lan honen jomugetako bat: zer ikasten duten, non eta noiz ikasten duten, noren eraginez eta abar. Hirugarrenik, beren burua politikatik urrun ikusten duten gazteek politikari eta herritartasunari esleitzen dizkieten zentzuak aurkitzea, eta urruntze horren atzean egon daitezkeen arrazoi sozialak identifikatzea eta azaleratzea. Laugarrenik, politikoki aktibo diren gazteen artean, beren ikasketa eta esperimentazio politikoean darabiltzaten praktikak ezagutzea, bai parte hartzeko erreperitorio konbentzionalak eta ez-konbentzionalak, bai berriki azaleratzen ari direnak, eta praktika horietan hautematen dituzten herritartasun-loturak estalgabetzea. Azkenik, gazte politizatuenean politika eta partaidetza politikoa nola ulertzen dituzten zehaztea eta aztertzea: politikagintzari eta, zehazki, partaidetza politikoaari esleitzen dizkieten esanahiak jasotzea eta, horren ondorioz, ekintza aktibistaren ikuspegitik politika kontzeptuari emandako hedadura eta edukia ezagutzea. Azken helburu hori, batez ere gazte-aktibismoaren agertoki sozial pribilegiatu diren gune komunitario, ezkertiar eta abertzale-independistenten azterketan fokuratuko da.

#### ***1.4.2. Egitura***

Azterketa honetan landutako gaiak bi zati nagusitan antolatuta aurkezten dira. Lehenengo zatian aztertutako gazteen ikaste politikoeak, parte-hartze prozesuek eta herritartasun-ereduek hartutako adierazpenak jo dira analisiaren ardatz nagusizat. Prozesu horiek guztiek Modernitate Berantiarrak esparru politikora ekarritako aldaketen argitara ikuskatzen dira.

Hala, bigarren atalean, ikerketan elkarrizketaturiko Hego Euskal Herriko gazte zenbaitek egindako ibilbide politikoean jarri da arreta. Zehazki, gazteek emandako kontakizunen arabera berreraiki eta sailkatu egin dira ibilbide horiek termino analitikoetan, eta helduarorako igarotze-bidean gazteok burututako ikasketa politikoen moldeak eta ikasketa-prozesu horien ondorioz gauzatutako parte-hartzeak hartu dira aintzat tipologia bat lantzeko. Hirugarren eta laugarren atalean, berriz, gazteen aipatu ibilbideetan hezurmamitutako bi herritartasun mota aztertzen dira. Ildo horretan, hirugarren atalean era askotako deskonexio politikoen maila aitortu duten gazteen artean, gazteok deslotura politikoaari esleitu dizkieten esanahietan eta ondorioz gauzatu dituzten praktika zibiko-politikoetan sakontzen da. Era horretan, deskonexio politikoko egoera horretatik eratortzen diren esparru politikoaari buruzko harremanak deskribatzen dira. Kontuan harturik herritartasuna norbanakoek sistema politikoaekin ezarritako harremanen nolakotasunean oinarritzen dela, laugarren atalean analisia barrendu nahi izan da parte-hartze politikoa mota jakin batetik, hain zuzen ere, aktibismotik eratortzen diren herritartasun emergenteetan, herritartasun forma berri horiek azaleratzeko eta esploratzeko asmoz. Hari horretatik, gazte



aktibista batzuek beren esperimentazioetan sortutako herritartasun performatiboak analizatzen dira Hego Euskal Herriko aktibismoaren barnean, eta herritartasun horien garapena harremanetan jartzen da Modernitate Berantiarreko egiturazko aldaketa-prozesuekin.

Azterlanaren bigarren zati nagusian, Hego Euskal Herrian garatutako gazte-gune aktibista nagusienetako batean jarri da analisiaren fokua, hain zuzen ere, aktibismo hori eraldaketa-prozesuan dabilela abiaburu harturik. Halatan, ezker independentistako eta haren inguruko gune komunitarioetako aktibismoaren azken urteotako bilakaera hartu da aztergai.

Bigarren zati horri dagokionez, ñabardura kontzeptual batzuk egin beharrean gaude. Azterlanean «ezker independentista» terminoaren erabilera lehenetsi den arren, kontzeptu horrez gain «ezker abertzalea», «ezker abertzale-independentista» eta, zenbaitetan, «ezker nazionalista» kontzeptuak ere erabili dira landutako gaiaren testuinguruaren arabera. Ildo horretan, lehenago ezker abertzaleztat ezagutzen zen espazio politikoa birdefinitu egin da azken urteetan, independentistak izanik ere abertzaleak ez diren indarrak ere barnean hartzen dituelako gaur egun —esaterako, egungo EH Bildu koalizio politikoaren matrizean indar politiko ezkertiar abertzaleak eta ezkertiar ez-abertzaleak batzen dira, independentismoak edo burujabetza-asmak, eta politika sozialak elkarturik estrategia berean—. Baina, alde batetik, laginean hautaturiko gazte batzuek indar desberdinen biltze hori baino lehenago hasi zuten beren sozializazio politikoa gune aktibistetan, hau da, ezker abertzalearen edo haren ingurune komunitarioen mugimenduetan egin zuten hastapenetako ikasketa politikoa. Beste alde batetik, hizkera arruntean oso barneratuta dago «ezker abertzale» izendapena, eta hala erabiltzen da eskuarki. Horrenbestez, elkarriketaturiko gazte gehienek ere hala erabili dute gehienetan beren diskurtsoetan, eta halaxe jaso da haien aipuetan. Nolanahi ere, korapilo kontzeptualak berak adierazten du aldaketa-prozesuek berezkoak dituzten diskurtsoen anbiguetateak eta paradoxak.

Esanak esan, bigarren zati horretan ezker independentistaren barruko gazte-aktibismoan lau ardatz nagusi hartu dira aztergai. Hauexek dira, hurrenez hurren: aktibismoaren ikasketa politikoa, genero-ordenaren eragina ikasketa horretan, aktibismo digitalaren nondik norakoa teknologia berrien garapenaren testuinguruan eta abertzaleak ez diren Modernitate Berantiarreko gizarte-mugimenduen agenden txertaketa gaur egungo aktibismo nazionalistan. Hala, bosgarren atalean, aktibismoaren gunean azken urteetan gauzatu den gazte aktibisten ikaskuntza edo sozializazio politikoa analizatu da, eta testuinguru politiko aldakorrean oinordetzan jasotako kultura politikoaren eta gazteek eguneratutako praktika berrien arteko harreman dialektikoan sakondu da. Sozializazio-prozesuarekin jarraikiz, seigarren atalak gazteen ikasketa politikoan indarrean dagoen genero-araubideak aktibismoan ezarritako hertsapenen identifikazioa izan du helburu. Horrekin batera, aktibismoaren ikasketa generizatuan gertatu diren aldaketak ere detektatzen eta aztertzen dira. Ikasketa politikoaren ildo beretik, zazpigarren atalean IKTek eta tresna digital

berriek gazte-aktibismoaren ohiko praktiketara ekarritako sakoneko eraldaketen berri ematen da. Hala, gazte aktibisten ikuspegiaren arabera, egungo ziberaktibismoak eskaintzen dituen aukeren eta arriskuen inguruko hausnarketa egiteko parada ematen du atal horrek. Azkenez, zortzigarren atalean esploratzen da belaunaldi gazteenek nola integratu dituzten gaur egungo agenda aktibistak aktibismo nazionalistaren diskurtsoetan eta praktiketan, eta integrazio horrek izandako eraginak ohiko ikusmolde abertzalean.

Lehenengo atal honetan izan ezik, liburuak barnean hartzen dituen gainerako atal guztietan egitura bera erabili da gaiak aztertzeko. Lehenik eta behin, gaien analisi teorikoa egiten da eta, gaiari buruzko literatura zientifikoaren berrikusketaren bitartez, azterketaren oinarriak finkatzen dira eta aztergaiak zedarritzen. Ondoren, kasu-azterketarako hartutako gazteen lagina zehazten da, eta horiei egindako elkarrizketetatik hautaturiko atal tematiko zehatzak azaltzen dira. Amaitzeko, gazteen adierazpenetatik aukeratu diren aipu adierazgarrienak analizatzen dira, haien diskurtsoen irakurketa soziologikoa egiteko eta, azkenik, interpretazio horren ondorioak laburbiltzen dira.